

Aizoain
Aitzoain

Añezcar
Añezkar

Artica
Artika

Ballariain

Berrioplano
Berriobeiti

Berriuso
Berriogoi

Elcarte
Elkarte

Larragueta
Larrageta

Loza
Lotza

Oteiza
Oteitza

Colabora / Laguntzailea:



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Tirada / Ale kopurua:

3.200

D.L. / L.G:

NA- 1432-2006.

Difusión gratuita

Doako banaketa

Fotografía / Argazkia:

Iñaki Porto, Jon Urriza

Realiza / Errealizatzailea:

Heda Comunicación

Traducción / Itzulpena: Kike

Diez de Ulzurrun

Consejo de redacción/
Eredakzio Kontseilua:

Félix Remirez, Raúl Bator,

Donald Navas, Franciso

Esquiroz, Victor Gil, Fco. Javier

Vallez, Unai Calvo

Edita / Argitaratzailea:

Ayuntamiento de

Berrioplano

Berriobeitiko Udala

BERRIO PLANO INFORMA

BERRIO BEITI ko AHOTSA

72

Ekaina 2024 / 2024 Junio

Boletín de información municipal
del Ayuntamiento de Berrioplano

Berriobeitiko udalaren
informazio aldizkaria

Síguenos en / Hemen gaituzu:



<http://www.berrioplano.es/>



Euskararen Jaia :: Día del Euskera

VERANO 2024

Junio-Julio-Agosto
ACTIVIDADES EN LAS
INSTALACIONES DEPORTIVAS DE
ARTICA Y DE BERRIOPLANO

Consulta la
programación
en este QR:



12 de junio, miércoles
CONCIERTO FINAL DE
CURSO ESCUELA DE
MÚSICA ORREAGA
Hora: dos pases, 18:00 y 19:30
Lugar: Casa de Cultura María de Maeztu **Entrada:** gratuita

15 y 16 de junio, sábado y
domingo
FIESTAS DE BALLARIAIN

15 de junio, sábado
FINALES III CAMPEONATO
DE FRONTENIS
Hora: 20:00 **Lugar:** Frontón de Añezcar

21, 22 y 23 de junio
FIESTAS DE OTEIZA

2 de julio, martes
CAMPAMENTOS URBANOS
INFANTILES. INSCRIPCIÓN
PLAZAS LIBRES
Información:
www.berrioplano.es
948 012 012 Infolocal

5 de julio, viernes
PASEOS SALUDABLES
Hola: 10:00 **Punto de**
encuentro: Consultorio
médico de Berrioplano
No es necesaria inscripción

2, 3 y 4 de agosto
FIESTAS DE LARRAGUETA

2 de agosto, viernes
TEATRO DE CALLE
"Welcome & Sorry"
Compañía: Ganso & Cia
Hora: 18:00 **Lugar:** frontón
de Larragueta **Edad:** todos los
públicos **Duración:** 50 min

10 de agosto, sábado
CINE AL AIRE LIBRE
"Astérix y Obélix y el Reino
Medio". Aventuras, familiar
Hora: 22:00 **Lugar:** plaza de
Oteiza **Edad:** no
recomendada para menores
de 7 años **Duración:** 111 min

17 de agosto, sábado
CINE AL AIRE LIBRE
"Lili, mi amigo el cocodrilo".
Comedia familiar **Hora:** 18:30
Lugar: plaza de Oteiza **Edad:**
todos los públicos **Duración:**
106 min

23, 24 y 25 de agosto
FIESTAS DE BERRIOSUSO

23 de agosto, viernes
TEATRO DE CALLE
"Kinki Games" **Compañía:**
Amico Teatro **Hora:** 18:30
Lugar: frontón de Berriusoso
Edad: todos los públicos
Duración: 60 min

6, 7 y 8 de septiembre
FIESTAS DE AÑEZCAR

FIESTAS DE EL CARTE
FIESTAS DE ARTICA

6 de septiembre, viernes
TEATRO DE CALLE
"Sergius Show" **Compañía:**
Sergio de Andrés **Hora:** 18:00
Lugar: frontón de Añezcar
Edad: todos los públicos
Duración: 60 min

8 de septiembre, domingo
TEATRO DE CALLE
"Dale Ramón" **Compañía:**
Trapu Zaharra **Hora:** 18:30
Lugar: plaza de Elcarte **Edad:**
todos los públicos
Duración: 60 min

13, 14 y 15 de septiembre
FIESTAS DE LOZA

13 de septiembre, viernes
TEATRO DE CALLE
"El arte de sorprenderte"
Compañía: Mago Hodei
Hora: 18:30 **Lugar:** Loza
(carpa) **Edad:** todos los
públicos **Duración:** 75 min

16-20 de septiembre
TEATRO DE CALLE
Venta de tickets para la
comida del Día de la Cendea

28 de septiembre
DÍA DE LA CENDEA
Ballariain

2024ko UDA

Ekaina-Uztaila-Abuztua
JARDUERAK ARTIKAKO
ETA BERRIOBEITIKO
KIROLDEGIETAN

Ikusi egitaraua
QR honetan:



Ekainak 12, asteazkena
ORREAGA MUSIKA ESKOLA:
IKASTURTE AMAIERAKO
KONTZERTUA
Ordua: bi saio, 18:00 eta 19:30
Non: María de Maeztu Kultur
Etxea **Sarrera:** doan

Ekainak 15 eta 16, larunbata
eta igandea
BALLARIAINGO FESTAK

Ekainak 15, larunbata
III. FROTENIS
TXAPELKETAKO FINALAK
Ordua: 20:00 **Non:** Añezkarko
pilotalekua

Ekainak 21, 22 eta 23
OTEITZAKO FESTAK

Uztailak 2, asteartea
HAURRENDAKO HIRI
KANPALDIAK. IZEN-
EMATEA, LEKU LIBREAK
Informazioa:
www.berrioplano.es
948 012 012 Infolocal

Uztailak 5, ostirala
IBILDALDIA
OSASUNGARRIAK
Ordua: 10:00 **Topagunea:**
Berriobeitiko kontsulategi
medikoa. Ez da izena eman
beharrik

ABUZTUAK 2, 3 eta 4
LARRAGETAKO FESTAK

Abuztuak 2, ostirala
KALE ANTZERKIA
"Welcome & Sorry" **Taldea:**
Ganso & Cia **Ordua:** 18:00
Non: Larragetako pilotalekua
Adina: Jende guztiarendako
Iraupena: 50 min

Abuztuak 10, larunbata
ZINEMA PLAZAN
"Astérix y Obélix y el Reino
Medio". Abenturak,
familientzat **Ordua:** 22:00
Non: Oteitzako plaza **Adina:**
ez dago gomendatua 7
urteik beharagoentzat
Iraupena: 111 min

Abuztuak 17, larunbata
ZINEMA PLAZAN
"Lili, mi amigo el cocodrilo".
Komedía, familientzat **Ordua:**
18:30 **Non:** Oteitzako plaza
Adina: Jende guztiarendako
Iraupena: 106 min

Abuztuak 23, 24 eta 25
BERRIOGOITIKO FESTAK

Abuztuak 23, ostirala
KALE ANTZERKIA
"Kinki Games" **Taldea:** Amico
Teatro **Ordua:** 18:30 **Non:**
Berriogoitiko pilotalekua
Adina: Jende guztiarendako
Iraupena: 60 min

Irailak 6, 7 eta 8
AÑEZKARKO FESTAK
ELKARTEKO FESTAK
ARTIKAKO FESTAK

Irailak 6, ostirala
KALE ANTZERKIA
"Sergius Show" **Taldea:** Sergio
de Andrés **Ordua:** 18:00 **Non:**
Añezkarko pilotalekua **Adina:**
Jende guztiarendako
Iraupena: 60 min

Irailak 8, igandea
KALE ANTZERKIA
"Dale Ramón" **Taldea:** Trapu
Zaharra **Ordua:** 18:30 **Non:**
Elkarteko plaza **Adina:** Jende
guztiarendako **Iraupena:** 60 min

Irailak 13, 14 eta 15
LOTZAKO FESTAK

Irailak 13, ostirala
KALE ANTZERKIA
"El arte de sorprenderte"
Taldea: Hodei Magoa **Ordua:**
18:30 **Non:** Lotza (karpa)
Adina: Jende guztiarendako
Iraupena: 75 min

Irailak 16-20
KALE ANTZERKIA
Txartel salmenta Zendearen
Eguneko bazkarirako

Irailak 28
ZENDEAREN EGUNA
Ballariain

DENBORALDI BERRIA / NUEVA TEMPORADA



2024-
2025eko udal
ikastaroak

Cursos
municipales
2024-2025

Datorren ikasturteko udal ikastaroetan izena emateko epea 2tik 5era izanen da, 948 012 012 zenbakian (012-Infolokal). Lekuak baieztatzea eta ordainketa irailaren 10ean, 11n eta 12an izanen dira. Leku liberrik bada, izena emateko bigarren aukera eskainiko da hilabetea bukatuurretik. Aurten lehen aldiz izena ere udal webaren "Jarduerak. Izen-ematea" atalean ematen ahalko da (www.berrioplano.es). Udan, foiletoak banatuko dira etxex etxe xehetasun guztien berri emateko.

El plazo de inscripción para el próximo curso de las actividades municipales serán del 2 al 5 de septiembre en el 948 012 012 (012-Infolocal). La confirmación de plazas y el pago serán los días 10, 11 y 12 de septiembre. En caso de que queden plazas libres, habrá una inscripción de repesca antes de que finalice el mes. Como novedad, la inscripción también podrá hacerse en el apartado "Inscripción actividades" de la web municipal (www.berrioplano.es). En verano se buzconará un folletos con la información completa.

MUSIKA ESKOLA GIRONAN / LA ESCUELA DE MÚSICA EN GIRONA



Harremanak sakontzeko bidaia | Un viaje para hacer grupo

Orreaga Musika Eskolako ikasleek bidaia egin zuten apirilaren 19tik 21era Torroella de Montgrí (Girona). Bidaia, ordea, Kataluniako musika eskolak gurera egindako bisitaren truke hutsa baino askoz ere gehiago izan zen. Kideen arteko harremanak sakontzeko eta are gehiago adiskide-tzeko balio izan zuen. Guztira, 5 irakasle eta 50 ikasle joan ziren Kataluniara, bai Banda Txiki-koak, bai Artikako Musika Eskolako "Hauspo Rock" trikitixa eta akordeoi taldea, baita Garraldako Combo bat ere.

El viaje que el alumnado de la Escuela de música Orreaga realizó a Torroella de Montgrí (Girona) el fin de semana del 19 al 21 de abril fue mucho más que el canje de la visita que previamente había hecho la escuela de música catalana. Sirvió para que las y los participantes reforzaran su amistad e hicieran grupo. En total, 5 profesores y 50 alumnos y alumnas pertenecientes a la Banda Txiki, el grupo de trikis y acordeones "Hauspo Rock" de la Escuela de música de Artica y un Combo de Garralda se sumaron al viaje a tierras catalanas.

NOVEDADES BIBLIOTECA LIBURUTEGIKO NOBEDADEAK



- MARTÍNEZ PEÑA, Inigo
Pantailen garaipena
Elkar, 2023
- DEL MOLINO, Sergioa
Los alemanes
Alfaguara, 2024
- GUERRIERO, Leila
La llamada
Anagrama, 2024
- BARQUINERO, Sara
Los escorpiones
Lumen, 2024
- SANTIAGO, Roberto
Futboleroak 6:
Sorgindutako
gatzeluaren misterioa
SM Ikasmina, 2021
- REGUERA, Galder
Camus gaztearen
eskutitzak
Giltza, 2023
- BERTRAND, Joland
Las hermanas invierno
Errata Naturae, 2024
- MUTUBERRIA, Maite
Arrats zapo bat
Pamiela, 2024

LIBURUTEGIAREN ORDUTEGIA
ekainaren 17tik irailaren 13ra /
HORARIO DE LA BIBLIOTECA del
17 de junio al 13 de junio: 8:30-14:30

BIBLIOTECA A DOMICILIO ETXEZ ETXeko LIBURUTEGIA

PARA PERSONAS CON MOVILIDAD REDUCIDA

Personas residentes en las poblaciones de Berrioplano, con carné de usuario de las Bibliotecas Públicas de Navarra y movilidad reducida acreditada.

Solicitudes

bibliarc@navarra.es y en el
948 38 26 22
(de 15:00 a 21:00. En verano
de 9:00 a 2:30)

MUGIKORTASUN URRIKO JENDEARENTZAT

Berriobeitiko herrietan bizi direnentzat, Nafarroako Liburutegi Publikoetako erabiltzaile txartela badute eta mugikortasun urria ziurtatua badute.


Eskariak

bibliarc@navarra.es eta
948 38 26 22
(15:00 - 21:00. Uda, 9:00 - 2:30)

CIFRAS / ZENBAKIAK

EQUIPAMIENTO DE LA VÍA VERDE DEL PLAZAOLA A SU PASO POR BERRIOPLANO

PLAZAOLAKO BIDE BERDEAREN EKIPAMENDUA, BERRIOBEITIN



LETRAS / HIZKIAK

“Sarde”: horca de hierro de tres o cinco puntas. “El sarde usamos para dar vuelta al fiemo” (del euskera, *sarede*: horca, rastrillo).

“Txungur”: hueso que queda del pernil y se usa para hacer caldo. Una canción tradicional decía: “El alcalde de Zabaldika / a la berza le echa birika / en cambio el de Zizur / a la berza le echa txungur” (del euskera *txungur/txongor/txongo*: hueso de cerdo con carne magra).

Fuente: *El euskera en el habla cotidiana de la Cendea de Berrioplano.*

“Sarde”: Burdinazko tresna, hiru edo bost puntakoa. “Sardea erabiltzen dugu simaurra iraultzeko”. [Euskaratik: sardea]

“Txungur”: Urdaiazpiko-hezurra; salda egiteko erabiltzen da. Honatz kantu zahar batek zer zioen: “El alcalde de Zabaldika / a la berza le echa birika / en cambio el de Zizur / a la berza le echa txungur” [Euskaratik: txungurra: txerri-hezurra giharrarekin].

Iturria: *Euskara Berriobeiti Zendeako eguneroko hizkeran.*



BOOKCROSSING
bookcrossing.com

INTERCAMBIO DE LIBROS EN BERRIOPLANO Y ARTICA

Centro Cívico María Domínguez de Artica (en horario de actividad). Edificio Multiusos de Berrioplano (de 10:00 a 22:00)

LIBURU TRUKEA BERRIOBEITIN ETA ARTIKAN

María Domínguez Gizarte Etxean (jarduerak daudenean bakarrik dago zabalik). Berriobeitiko Erabilera anitzeko (10:00etatik 22:00etara)

OSOKO BILKURA ARRUNTA (2024-03-05)

Dirulaguntza-deialdia irabazi-asmorik gabeko gizarte partaidetzarako erakundeentzat, 2024. urteko % 0,2rekin prebentzio, sustapen eta lankidetzako proiektuak garatzeko. Zinegotzi guztiak bertan zirela, osoko bilkurak aho batez onetsi zuen aztergaia.

Udalak bat egin du NUKFren Garapenerako Lankidetzarako Toki Funtsarekin. Osoko bilkurak aztergaia onetsi zuen, 7 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, VPA eta PSN) eta 6 kontra (AAB, PP, UPN).

Etxebakar sektoreko karrika eta plaza izenen onespena.

Osoko bilkurak Etxebakar sektoreko karrika eta plaza izenak onetsi zituen, 7 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, VPA eta PSN) eta 6 kontra (AAB, PP eta UPN). Berriobeitiko Udalak eta Artikako Kontzejjuak abiarazitako parte-hartze prozesuaren ondorioz proposatutako izenak izan dira.

Hasiera batez onetsirik 2. aldaketa 2024ko aurrekontuetan.

Osoko bilkurak aurrekontu aldaketa onetsi zuen, 7 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, VPA eta PSN) eta 6 kontra (AAB, PP eta UPN). Horrenbestez, 1.500 euro eman zaizkio Aranzadi Zientzia Elkarteari Iruñerriko hegazti habia-egileen atlas egiteko.

Hasiera batez onetsirik kontzejuendako dirulaguntza-deialdia oihan ondarea mantendu eta ustiatzeko eta 2024ko ingurumen kontserbaziorako. Aztergaia aho batez onetsi zen.

M-8: berdintasun teknikarien adierazpen instituzionala.

Osoko bilkurak M-8ko adierazpen instituzionala onetsi zuen, 11 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica eta PSN) eta 2 abstentzio (AAB). Udalak, beraz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen jarraituko du politika publikoen bidez eta genero ikuspegia udal arau, plan eta proiektu guztietan sartuz. Udalak, halaber, azterlan eta ikerlan feminista bultzatzen segituko du, esparru guztietan eta jendearen biziari guztietan diren desberdinkeriak ikusarazteko, eta mugimendu feministak gizarte zuzen eta berdintasunezko lortzeko egin dituen ekarpenak eta lana aintzat hartzeko, erakundeekiko interlokuziorako guneak sortuz; eta adin guztietako gizonetik esku-hartzea bultzatuko du, berdintasunezko maskulinitate ereduen eraikuntza sustatze aldera.

UPNren mozioa Nafarroako Gobernu premiatzeko, lehen sektorearen aldeko neurriak har ditzan. Gobernu taldeak (EH Bildu, Plazaola, VPA eta PSN) mozioa puntuz puntu aztertzea eskatu zuen. UPNk, ordea, ez zuen hori onartu. Mozioa bozkaturik, osoko bilkurak baztertu zuen, 6 boto izan baitziren alde (UPN, PP eta AAB) eta 7 kontra (EH Bildu, Plazaola, VPA eta PSN).

OSOKO BILKURA ARRUNTA (2024-04-09)

Iruzurraren aurkako neurriak onetsi dira EBko Next Generation funtsak kudeatzeko. Zinegotzi guztiak bertan zirela, osoko bilkurak aho batez onetsi zuen iruzurraren aurkako neurrien plana, EBko Next Generation

funtsetatik jasotako dirulaguntza kudeatzeko, 2023an ibilgailu elektrikoak kargatzeko zortzi gune paratzeagatik.

OSOKO BILKURA ARRUNTA (2024-05-07)

Aurrekontu aldaketa, Artikako haur eskolan psikomotrizitate ikasgela bat eraikitzeko. Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Javier Vallez izan ezik (Vecinos por Artica). Osoko bilkurak aurrekontuetan aldaketa egitea onetsi zuen, 209.341,55 euroko kreditu bat sartzeko, Artikako haur eskolan psikomotrizitate ikasgela bat eraikitze aldera. 8 boto izan ziren alde (EH-Bildu, UPN, Plazaola eta PSN) eta 4 kontra (PP eta AAB).

Aurrekontu aldaketa, udalerriko 10 herrietako garbiketa zerbitzua lizitaziora ateratzeko. Aho batez onetsi zen 17.172,32 euroko kreditu bat esleitzea, udalerriko 10 herrietako garbiketa zerbitzua lizitaziora ateratzeko.

Aurrekontu aldaketa, UIB aldizkaria eta sare sozialen komunikazio/kudeaketa zerbitzua lizitaziora ateratzeko. Osoko bilkurak 10.300 euroko kreditua sartzeko onetsi zuen, UIB aldizkariaren argitalpena eta sare sozialen komunikazio/kudeaketa zerbitzua lizitaziora ateratzeko, 6 boto izan baitziren alde (EH-Bildu, Plazaola eta PSN), 4 kontra (PP eta AAB) eta 2 abstentzio (UPN).

Aurrekontu aldaketa, udaletxeko fatxadan argiztapen sistema bat paratzeko. Osoko bilkurak 6.500 euroko kreditu bat esleitzea onetsi zuen, udaletxeko fatxadan argiztapen

sistema bat paratzeko, tankera sozialeko egunen ospakizunetan erabiltze aldera (emakumearen kontrako indarkeriaren aurkako eguna, autismoa, minbizia, etab.), hainbat elkartek eskaturik. 6 boto izan ziren alde (EH-Bildu, Plazaola eta PSN), 4 kontra (PP eta AAB) eta 2 abstentzio (UPN).

PPren mozioa, gazteendako etxebizitza eskuratzeari buruz. PPK aurkeztutako mozioaren bigarren puntua aldatu ondoren, hau da, Etxebakar sektorea bakarrik aipatzen zuen huraxe, osoko bilkurak aho batez onetsi zuen lan mahai bat eratzea Hirigintza Batzordearen baitan, udalerrian erroldatutako gazte jendearendako etxebizitza eskuratzeko; halaber, neurri zehatzak bilduko dituen plan bat garatzea Berriobeitiko udalerriri guztiak gauzatzeko, eta baliabide ekonomikoak eta administratiboak zehaztea plana abian jartzeko.

Balorazio txostenaren proiektua jendaurrean jartzea. Osoko bilkurak aztergaia onetsi zuen, 6 boto izan baitziren alde (EH-Bildu, Plazaola eta PSN), 4 kontra (UPN eta AAB) eta 2 abstentzio (PP).

OSOKO BILKURA BEREZIA (2024-05-14)

Zozketa, ekainaren 9ko Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetako hautes-mahaietako kideak aukeratzeko. Zozketa zinegotzi guztien aurrean egin zen.

ORDENANZA / ORDENANTZA

Los perros siempre atados

El Ayuntamiento recuerda que los perros deben ir atados siempre cuando transiten por la vía pública mediante una cadena o correa resistente, de longitud máxima de 2 metros. Su presencia está prohibida en zonas de juegos infantiles, patios de colegios y guarderías de niños. Por otro lado, está prohibido que los perros hagan sus deposiciones sobre aceras, calzadas, zonas verdes o ajardinadas y en los demás elementos de la vía pública o privada de uso público. Las personas que paseen con perros están obligadas a retirar y recoger las deposiciones, envolverlas y tirarlas en los lugares en los puntos acondicionados para ello. Consulta la Ordenanza en el QR.



Txakurrak beti loturik

Udalak oroitarazi du txakurrek loturik joan behar dutela beti kate edo lokarri sendo batekin, bide publikoan dabiltzanean, eta kateek edo lokarriek gehienez 2 metro izan behar dituztela luzeran. Txakurrak debekatuak daude haur jolasguneetan, ikastetxeetako jostalekuetan eta haurtzaindegietan. Bestalde, debekatua dago txakurrek kaka egitea espaloi, galtzada, berdegune eta lorategietan, bai eta eremu publiko edo erabilera publikokoak diren eremu pribatuak gainerako elementuen gainean ere. Txakurrekin paseoa doazen pertsonak txakur gorozkiak jaso, bildu eta horretarako propio dauden lekuetara eraman behar dituzte. Kontsultatu ordenantza QR honetan.

Servicio de Atención a la ciudadanía (9:00 - 14:00)
Ayuntamiento: 948 30 31 29. De lunes a viernes.
Artigune II: Leonor de Aquitania, 26 (Artica). Martes y miércoles.

Herritarrendako Arreta Zerbitzua (9:00 - 14:00)
Udala: 948 303129. Astelehenetik ostiralera.
Artigune II: Leonor Akitaniakoa, 26 (Artika). Asteartea eta asteazkena.

PLENO ORDINARIO (05-03-2024)

Convocatoria de subvenciones a entidades de participación social sin ánimo de lucro que desarrollen proyectos de prevención, promoción y cooperación social del 0,2% del año 2024. Con asistencia de toda la Corporación, el Pleno aprobó por unanimidad este punto.

Adhesión al Fondo Local de Cooperación al Desarrollo de la FNMC. El Pleno aprobó este punto con 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, VPA y PSN y 6 en contra de AAB, PP y UPN.

Aprobación de la denominación de calles y plazas del Sector Etxebakar. El Pleno aprobó por 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, VPA y PSN y 6 en contra de AAB, PP y UPN la denominación de las calles y plazas del Sector Etxebakar resultantes del proceso participativo abierto por el Ayuntamiento de Berrioplano y el concejo de Artica.

Aprobación inicial de la modificación presupuestaria 2-2024. El Pleno aprobó con 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, VPA y PSN y 6 en contra de AAB, PP y UPN esta modificación presupuestaria para conceder a la Sociedad de Ciencias Aranzadi 1.500 euros para la elaboración de un atlas de aves nidificantes de la Comarca de Pamplona.

Aprobación de la convocatoria de subvenciones a concejos para fines de mantenimiento y explotación del patrimonio forestal y la conservación

medioambiental del año 2024. Punto aprobado por unanimidad.

Declaración institucional 8-M de la red de técnicos de igualdad. El Pleno aprobó por 11 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica y PSN y 2 abstenciones de AAB la Declaración institucional del 8-M para que el Ayuntamiento siga promoviendo la igualdad entre mujeres y hombres a través de las políticas públicas y de la incorporación de la perspectiva de género en todas las normas, planes y proyectos municipales; para que continúe impulsando el estudio y la investigación feminista para visibilizar las desigualdades existentes en todos los ámbitos y en todas las etapas de la vida de las personas; para reconocer las aportaciones y el trabajo del movimiento feminista para el logro de una sociedad justa e igualitaria, creando espacios para la interlocución con las instituciones; y para impulsar la intervención con los hombres, de todas las edades, para promover la construcción de modelos de masculinidad igualitarios.

Moción de UPN para instar al Gobierno de Navarra a tomar medidas en defensa del sector primario. El equipo de Gobierno (EH Bildu, Plazaola, VPA y PSN) solicitó tratar la moción punto por punto, pero UPN rechazó la propuesta. Sometida a votación, quedó rechazada por 6 votos a favor de UPN, PP y AAB y 7 en contra de EH Bildu, Plazaola, VPA y PSN.

PLENO ORDINARIO (09-04-2024)

Aprobación del Plan de medidas antifraude para la gestión de los Fondos Next

Generation UE. En una sesión a la que asistió toda la Corporación el Pleno aprobó por unanimidad el Plan de medidas antifraude para gestionar la subvención recibida de los Fondos Next Generation UE por la instalación de ocho puntos de recarga de vehículos eléctricos en 2023.

PLENO ORDINARIO (07-05-2024)

Modificación presupuestaria para la construcción de un aula de psicomotricidad en la escuela infantil de Artica. Con asistencia de toda la Corporación excepto Javier Vallez (Vecinos por Artica), el Pleno aprobó por 8 votos a favor de EH-Bildu, UPN, Plazaola y PSN y 4 en contra de PP y AAB una modificación presupuestaria para incluir un crédito de 209.341,55 euros destinado a la construcción de un aula de psicomotricidad en la escuela infantil de Artica.

Modificación presupuestaria para licitar el servicio de limpieza de los 10 pueblos del municipio. Se aprobó por unanimidad asignar un crédito de 17.172,32 euros para licitar el servicio de limpieza manual de los diez pueblos del municipio.

Modificación presupuestaria para licitación del BIM y del servicio de comunicación/gestión de las redes sociales. El Pleno aprobó por 6 a favor de EH-Bildu, Plazaola y PSN, 4 en contra de PP y AAB y 2 abstenciones de UPN incluir un crédito de 10.300 euros para licitar la publicación del BIM y el servicio de comunicación/gestión de redes sociales.

Modificación presupuestaria para instalar un sistema de

iluminación en la fachada de la Casa Consistorial. El Pleno aprobó por 6 a favor de EH-Bildu, Plazaola y PSN, 4 en contra de PP y AAB y 2 abstenciones de UPN asignar un crédito de 6.500 euros para instalar un sistema de iluminación en la fachada de la Casa Consistorial para su uso con motivo de la celebración de días de carácter social (contra la violencia ejercida sobre la mujer; autismo; cáncer, etc.) a petición de diversas asociaciones.

Moción del PP sobre el acceso a la vivienda para la población joven. Tras modificar el segundo punto de la moción presentada por el PP, que hacía referencia únicamente al sector Etxebakar, el Pleno aprobó por unanimidad crear una mesa de trabajo dentro de la Comisión de Urbanismo para abordar un Plan de acceso a la vivienda para la población joven empadronada en el municipio; desarrollar un plan con medidas concretas que se materialicen en todo el municipio de Berrioplano, y aportar los recursos económicos y administrativos para su puesta en marcha.

Someter a trámite de información pública el proyecto de Ponencia de Valoración. El Pleno aprobó este punto con 6 votos a favor de EH-Bildu, Plazaola y PSN, 4 en contra de UPN y AAB y 2 abstenciones de PP.

PLENO EXTRAORDINARIO (14-05-2024)

Sorteo de los miembros de las mesas electorales para las elecciones al Parlamento europeo del 9 de junio. Se realizó el sorteo con asistencia de toda la Corporación.

MATERIAL EROSKETA / COMPRA DE MATERIAL



Bi karpa eta orga jasotzaile bat erosi dira

Udalak bi karpa erosi dizkio 49.800 euroan (+ BEZa) Carpas Zaragoza S.L. enpresari, jai, gizarte, kirol eta kultur arloko ekitaldi eta jardueretan erabiltzeko. Karpa bakoitza bere kasa erabil daiteke edo biak ere batuta, edukiera handiagoko karpa handiagoa osatze aldera. Udalak, halaber, orga jasotzaile bat erosi du zerbitzu anizkoitzetan ari diren langileendako.

Adquisición de dos carpas y una carretilla elevadora

El Ayuntamiento ha adquirido a la empresa Carpas Zaragoza S.L. dos carpas por un importe de 49.800 euros +IVA para su uso en eventos y actividades festivas, sociales, deportivas o culturales. Las carpas se pueden utilizar de manera individual y también se pueden unir para formar una única carpa de mayor capacidad. Asimismo, el consistorio ha adquirido una carretilla elevadora para el personal de Servicios Múltiples.

PATRIMONIO / ONDAREA

BERRIOPLANO INFORMA / BERRIOBEITIKO AHOTSA



Vía Verde del Plazaola en la Cendea

El pasado 15 de abril se inauguró el tramo de la vía verde del Plazaola entre Sarasa y Pamplona. En total, 9,65 kilómetros de gran belleza paisajística que discurren por el entorno natural del municipio de Berrioplano.

Plazaolako bide berdea Zendea

Joan den apirilaren 15ean, Plazaolako bide berdearen tarte bat inauguratu zen; Saratsatik Iruñera bitartekoa, hain zuzen ere. Guztira, 9,65 kilometro dira, paisaiari begira eder-ederak, Berriobeitiko udalerriko natur ingurunean barna.



Udaberriaz geroztik, Berriobeitiko udalerriko bizilagunek oinez edo bizikletaz gozatu dezakete Plazaolako bide tarte bat. Iruñea eta Donostia 1905etik 1953ra lotu zituen trenbide ospetsuaren hasierako tarte moldatau baita eta, orain, bide naturala edo bide berdea da. Tarte egokitu berriak 9,65 kilometro ditu luzeran eta gure udalerriko bazter hauek zeharkatzen ditu: Añezkarko gaina, Oteitzako San Joan Bataiatzailearen basiliza, Berriogoitiko Plazaola trenaren omenezko monumentua eta Aitzoango Plazaola industrialdea. Gero, Berriozarren sartu eta Artika Berritik zuzenean doa iruñera.

la tarte berri guztia egokitu da garai bateko trenbidearen gainean. Baina bi leku ezin izan dira bere horretan mantendu, biak ere oso gaizki daudelako, bi-biak,

tunelak. Bata Añezkarko gainekoa eta, bestea, Berriogoitikoa. Horrenbestez, hormigoizko zoladura hobetsi da.

Hiru atsedeneku

Ibilbideak hiru atsedeneku ditu (Oteitzako San Joan Bataiatzailearen basiliza, Berriogoitiko Plazaola parkea eta, Berriozarren, bidearen eta trenbideen artean, moldatautako eremu bat) eta bakoitzean badira bizikleta-euskarriak. Ibilbidean barna, gainera, 17 jarleku, 2 piknik-mahai eta 120 seinale paratu eta 58 zuhaitz landatu dira (almendrondoak, gereziendoak, intxaurrondoak, arteak...).

Ibilbidea Construcciones Mariezcurrena enpresak moldatau du sei hilean eta arrerontua 455.000,47 eurokoa izan da. Dirubideak Next Generation Europako

funtsak eta Suspertze eta Erresilientzia Planaren funtsak izan dira.

Inaugurazioa

Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, honakoak izan ziren: Félix Remírez Berriobeitiko udalerriko alkatea, Blanca Merino Berriogoitiko kontzejuko burua, Blas Cantero Añezkarko kontzejuko burua, Rebeca Esnaola Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria, Alicia Echeverría Gobernuak Nafarroan duen ordezkaria eta Ana Rivas turismoko zuzendari nagusia.

Bide-tarte berria irekia dagoenez, Iruñetik Leitza-raino joan gaitzke bide berdean barrena, 52,65 kilometro dira. Horrenbestez, Plazaola trenbidearen ibilbide guztia egin daiteke, hiriburutik Andoaineraino (78 kilometro).

Desde esta primavera los vecinos y vecinas del municipio de Berrioplano ya pueden disfrutar de un paseo a pie o en bicicleta por el trayecto que en su recorrido inicial realizaba el emblemático tren a vapor que unió Pamplona y San Sebastián entre 1905 y 1953, el Plazaola. El antiguo trazado del ferrocarril, que ha sido acondicionado como Camino Natural-Vía Verde, cuenta con 9,65 kilómetros que recorren parte del municipio (alto de Añézcar, iglesia San Juan Bautista de Oteiza, Monumento al tren Plazaola de Berriosuso, polígono Plazaola de Aizoáin), pasan por Berriozar y enlazan con la capital navarra desde Nuevo Artica. Prácticamente todo el nuevo tramo coincide con el antiguo trazado de ferrocarril. Los únicos dos puntos que no han podido mantenerse debido a su mal estado han sido los túneles del alto de Añézcar y de Berriosuso. En su lugar, se ha optado por un pavimento de hormigón.

Tres áreas de descanso

El recorrido dispone de tres áreas de descanso (ermita San Juan Bautista de Oteiza, parque Plazaola de Berriosuso y una zona acondicionada en Berriozar, entre el camino y las vías del tren) con aparca bicis. Además, a lo largo del trazado se han instalado 17 bancos, 2 mesas de picnic y 120 señales y se han plantado 58 árboles (almendros, cerezos, nogales, encinas...).

El proyecto, cuya ejecución ha correspondido a Construcciones Mariezcurrera, ha contado con un presupuesto de 455.000,47 euros, financiados a través de los fondos europeos Next Generation, del Plan de Recuperación y Resiliencia y las obras de adecuación se han desarrollado en seis meses.

Inauguración

Al acto de inauguración asistieron el alcalde del Ayuntamiento de Berrioplano Félix Remírez, la presidenta del concejo de Berriosuso Blanca Merino, el presidente de Añézcar Blas Cantero, la consejera de Cultura, Deporte y Turismo Rebeca Esnaola, la delegada del Gobierno en Navarra, Alicia Echeverría y la directora general de Turismo, Ana Rivas.

Con la apertura de este nuevo tramo se completan los 52,65 kilómetros de vía verde desde Pamplona hasta Leitza y, por tanto, se puede recorrer el trazado completo del ferrocarril Plazaola hasta Andoain (78 kilómetros).

Hobekuntzak Iparhaizearen pasealekuan eta udako igerilekuetan



Mejoras en el parque del Paseo del Cierzo y en las piscinas al aire libre

El Ayuntamiento va a realizar obras en dos instalaciones de Berrioplano: en el parque situado junto al Paseo del Cierzo y en las piscinas al aire libre.

Las actuaciones previstas en el parque se centran en dos zonas. Por un lado, se sustituirá la tirolina actual por un circuito de calistenia (entrenamiento físico) compuesto por una "jaula" de ejercicio (con barras horizontales) y varios elementos individuales. Además, se renovará el suelo de caucho continuo.

En el parque infantil para niñas y niños de 0 a 6 años se mantendrán cuatro elemen-

Udalak obrak egingen ditu Berriobeitiko bi lekutan: batetik, Ipar-haizearen pasealekuaren ondoko parkean, eta bestetik, aire zabaleko igerilekuetan.

Parkeko bi eremutan egingen dira lanak. Batetik, egungo tirolinaren ordezkari kalistenia-zirkuitu bat paratuko da (entrenamendu fisikorako tresneria), ariketa "kaiola" batez (barra horizontalak) eta banakako hainbat elementuz hornitua. Bestetik, kautxuzko zola berrituko da.

Bestalde, 0-6 urteko haurrendako parkean lau elementu mantenduko dira, baina haietako bi birkotatuta. Halaber, elementu berriak paratu eta kautxuzko zola berrituko da. Eremu horretan oihalezko estalki bat jarriko da, 200 m² ingurukoa, argiztapena

barne, parkearen zatirik handiena hartuta. Toki txiki bat bakarrik geldituko da estali gabe.

Berriobeitiko aire zabaleko igerilekuetan, berriz, kanpoaldeko farolak berrituko dira, haien ordezkari LED argiak jarriko baitira, bai eta askaldegian ere. Bestalde, iturriaren ondoan harraskak paratuko dira.

tos, pero se reubicarán dos de ellos. También se colocarán elementos nuevos y se renovará el suelo de caucho continuo. En esta zona se instalará una cubierta textil de aproximadamente 200 m² que incluye iluminación y que ocupará gran parte del parque. Únicamente quedará sin cubrir una pequeña zona.

La actuación de las piscinas al aire libre de Berrioplano afectará a la iluminación de las farolas exteriores, que serán sustituidas por luminarias de LED, y también a la zona del merendero. Está prevista la colocación de fregaderos junto a la fuente.

AZPIEGITURAK / INFRAESTRUCTURAS

Kontsultategi mediko berrirako proiektuaren idazketa esleitu da

Udalak Peralta Ayesa S.L.P. enpresari esleitu dio Berriobeitiko kontsultategi mediko berrirako proiektuaren idazketa 116.760,70 euroan.

Bestalde, 2025ean erabakiko da obra nori esleitu; beraz, zentro berria datorren urtean eraikiko da. Kontsultategi mediko berria Berriogoitiko haur eskolaren ondoan kokatuko da.

Adjudicada la redacción del proyecto del nuevo consultorio médico

El Ayuntamiento ha adjudicado a la empresa **Peralta Ayesa S.L.P.** la redacción del proyecto de ejecución del nuevo consultorio médico de Berrioplano por un importe de 116.760,70 euros. La concesión de la obra y, por tanto, la construcción del nuevo centro se llevará a cabo en 2025. Está previsto que el edificio que albergará el futuro consultorio médico se sitúe junto a la escuela infantil de Berriosuso.

Preguntas y respuestas sobre la Ponencia de Valoración catastral

El Ayuntamiento va a someter las próximas semanas a trámite de información pública la revisión de la Ponencia de Valoración Catastral. El siguiente texto da respuesta a algunas de las dudas más frecuentes.

Katastroko balorazio txostenari buruzko galde-erantzunak

Udalak jendaurrean jarriko du datozen asteotan katastroko balorazioaren txostena. Honako testu honek zalantza ohikoenetako batzuei erantzuten die.

¿Qué es la Ponencia de Valoración? Es un trabajo técnico que deben realizar todos los ayuntamientos de Navarra y que consiste en elegir un método para dar un valor a cada bien inmueble situado en su municipio. De aquí se obtiene el valor catastral de cada terreno, vivienda, nave o cualquier otro bien inmueble situado en el término municipal (molinos, autopistas, balsas...).

¿Para qué sirve la Ponencia de Valoración? Sirve, fundamentalmente, para que los ayuntamientos de Navarra calculen el impuesto de la contribución que girarán a su ciudadanía cada año. También, en algunos casos, para calcular el impuesto de plusvalías (solo en los casos de compra venta de bienes inmuebles).

¿Quién realiza la Ponencia de Valoración? La ponencia de valoración es un trabajo muy técnico que requiere personas expertas en la materia y medios y herramientas muy específicos. Los ayuntamientos no disponen de este personal ni de estos medios y recurren a empresas externas. El resultado debe ser aprobado posteriormente por cada ayuntamiento. En el caso de Berrioplano, lo ha realizado la empresa pública TRACASA.

¿La Ponencia de Valoración se rige por alguna normativa?

Para revisar y aprobar la Ponencia de Valoración hay que cumplir una normativa específica, la más importante es la Ley Foral 12/2006 de 21 de noviembre, del Registro de la Riqueza Territorial y de los

Catastros de Navarra y la normativa complementaria que la desarrolla. Los ayuntamientos no pueden “elegir” libremente qué valor catastral otorgan a cada bien inmueble, ya que ese valor es el resultado de un estudio de mercado inmobiliario del municipio que incluye análisis, cálculos y estimaciones realizados por la empresa especializada.

¿Cuáles son los parámetros para calcular los nuevos valores de las Ponencias de Valoración?

El municipio se divide en zonas similares en cuanto al uso y tipo de construcción, y por cada zona se realiza un estudio pormenorizado del tipo de edificios que hay y las compraventas que se han producido en los últimos años. Con ello se obtiene una estimación del valor de cada bien inmueble. Los datos con los que se trabaja son:

- Compraventas realizadas en el municipio en los últimos años.
- Lo recogido en el ordenamiento urbanístico del municipio.
- Datos de catastro de cada parcela.

Esto explica por qué aumenta el valor catastral de las viviendas: en los últimos años, los precios de las compraventas de viviendas similares de la misma zona han aumentado. La tendencia a subir de precio es el comportamiento general del mercado inmobiliario y por ello todos los inmuebles aumentan su valor con el tiempo.

¿Por qué hay que actualizar la Ponencia y cada cuánto tiempo?

La normativa foral exige actualizar la Ponencia de Valoración cada 5 años (plazo máximo). La norma establece sanciones a los

ayuntamientos que no cumplan (o no hayan iniciado el proceso de revisión de valores (artículo 20 de la Ley Foral 7/2022)). El objetivo es que los valores catastrales de los inmuebles estén actualizados según el mercado inmobiliario de su entorno.

¿Quién aprueba la Ponencia de Valoración de cada Ayuntamiento?

La Hacienda de Navarra, pero antes se han debido superar una serie de filtros y trámites. Los más importantes son la exposición pública de la ponencia, para que cualquier persona titular de un bien inmueble pueda consultar su nuevo valor catastral; y el visto bueno de una Comisión Mixta participada por representantes de cada Ayuntamiento y de la Administración Foral, y presidida por una persona designada por el Gobierno de Navarra.

¿Cómo afecta a una persona propietaria la actualización de la Ponencia de Valoración?

El valor catastral de los bienes repercute en lo que corresponde pagar de Impuesto de la Contribución. Y como el valor catastral es un reflejo del comportamiento del mercado inmobiliario de cada zona, puede darse el caso de que siendo una persona propietaria de una vivienda unifamiliar y de una nave, si el mercado de unifamiliares ha ido al alza y el de naves ha tenido una tendencia a la baja, el valor catastral de la vivienda subirá (y por tanto su cuota de impuesto), mientras que el valor catastral y cuota de impuesto de la nave bajará.

¿Voy a estar pagando la misma cantidad los siguientes 5 años? No, lo que se pague del Impuesto de la Contribución puede variar de año en año por dos razones:

- 1º Los valores catastrales se recalculan cada año. Pueden variar por dos factores:
 - La antigüedad de las construcciones, que hace bajar ligeramente su valor
 - Posibles cambios que se produzcan sobre los suelos o construcciones, como por ejemplo reformas, cambios de uso...

En una parcela rústica lo habitual es que presente el mismo valor durante varios años seguidos.

- 2º Lo que se paga de contribución depende del valor catastral, pero también del “tipo impositivo” que cada ayuntamiento decida implantar en su municipio, dentro de una horquilla establecida por ley.

¿Mi ayuntamiento puede elegir el tipo impositivo del Impuesto de la Contribución?

No, también esto está regulado en una Ley Foral. El tipo impositivo tiene que estar entre 0,25 y 0,50 %. Esto es así para toda Navarra. Si un ayuntamiento tiene un tipo impositivo por debajo del 0,25% la normativa foral le obliga a subirlo hasta, por lo menos, llegar a ese 0,25%.

Berrioplano tiene en la actualidad un tipo impositivo del 0,2264%. En un año debe cumplir y adaptarse a lo que impone la ley foral, es decir, subir 0,0236 puntos del porcentaje.

Zer da balorazio txostena?

Lan teknikoa da, Nafarroako Udal guztiek egin beharrekoa, hau da, metodo bat aukeratu behar da udalerrian kokaturiko higiezin bakoitzari balio bat emateko. Horren bidez, lursail, etxebizitza, nabe edo udal dermioan kokaturiko beste edozein higiezin (errotak, autopistak, aintzirak...) katastro-balioa lortzen da.

Zertarako balio du balorazio txostenak?

Funtsean, Nafarroako Udalek herritarrei urtero igorriko dieten kontribuzio-zerga kalkulatzeko. Era berean, zenbait kasutan, gainbalioen gaineko zerga kalkulatzeko (higiezinak salerososten direnean baizik ez).

Nork egiten du balorazio txostena?

Balorazio txostena oso lan teknikoa da eta arloan adituak direnek egin behar dute, berariazko bitartekoak eta tresnak erabiliz. Udalek ez dute gisako langilerik, ez halako bitarteko eta tresnarik, eta kanpoaldeko enpresetara jotzen dute. dena den, emaitza udal bakoitzak onetsi behar du. Berriobeitiri dagokionez, lana TRACASA enpresa publikoak egin du.

Zer araudik arautzen du balorazio txostena?

Balorazio txostena berrikusteko eta onesteko, araudi jakin bat bete behar da; garrantzitsuena azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea da, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzkoa, bai eta huraxe garatzen duen araudi osagarria ere. Udalek ezin dute "askatasunez" aukeratu zernolako katastro-balioa eman dioten higiezin bakoitzari, balio hori udalerriko higiezin merkatuaren azterlan baten emaitza baita, eta barne hartzen dira enpresa espezializatuak egindako analisiak, kalkuluak eta zenbatespenak.

Zein dira balorazio txostenen balio berriak kalkulatzeko parametroak?

Udalerria antzeko eremuetan banatzen da, eraikuntza mota eta erabilerari dagokionez; eta eremu

bakoitzean xeheki aztertzen da zer eraikin mota dauden eta azken urteetan egindako salerosketak. Horren bidez, ondasun higiezin bakoitzaren balioaren zenbatespen bat lortzen da. Hona hemen zer datu aztertzen diren:

- Azken urteetan udalerrian egindako salerosketak.
- Udalerriko hirigintza-antolamenduan jasotakoa.
- Lurzati bakoitzaren katastro-datuak.

Horrek azaltzen du zergatik handitzen den etxebizitzaren katastro-balioa: azken urteotan, gora egin dute eremu bereko antzeko etxebizitzaren salerosketen prezioek. Prezioa igotzeko joera higiezin merkatuaren joera orokorra da, eta, horregatik, higiezin guztien balioa handitu egingo da denborarekin.

Zergatik eguneratu behar da txostena eta zenbatean behin?

Foru araudiarekin bat, balorazio txostena 5 urtean behin eguneratu behar da (gehieneko epea). Arauk zehapenak ezartzen dizkie balioak berrikusteko prozesua betetzen ez duten (edo hasi ez duten) udalei (7/2022 Foru Legearen 20. artikulua). Helburua da higiezin katastro-balioak inguruko higiezin merkatuaren arabera eguneratuak egotea.

Nork onesten du udal bakoitzeko balorazio txostena?

Nafarroako Ogasunak, baina aurretik iragazki eta tramite batzuk gainditu behar izan dira. Garrantzitsuena da txostena jendaurrean jartzea, ondasun higiezin baten edozein titularrek katastro-balio berria kontsultatu ahal izan dezan; eta Batzorde Misto baten oniritzia behar da. Udal bakoitzeko eta Foru Administrazioako ordezkariak parte hartuta, eta Nafarroako Gobernuak izendatutako pertsona bat buru duena.

Nola eragiten die balorazio txostena eguneratzeak jabeen?

Ondasunen katastro-balioak Kontribuzioaren gaineko zergan du eragina. Eta katastro-balioa

eremu bakoitzeko higiezin merkatuaren portaeraren isla denez, honakoa gerta daiteke: hots, familiabakarreko etxebizitza baten eta nabe baten jabea bagara, eta familiabakarreko etxebizitzaren merkatuak gorantz egin badu, eta nabearen merkatuak beherantzko joera izan badu, gerta daiteke etxebizitzaren katastro-balioak gora egitea (eta, ondorioz, haren zerga-kuota ere bai), eta, aldiz, katastro-balioak eta nabearen zerga-kuotak behera egitea.

Zenbateko berbera ordaintzen arituko naiz hurrengo 5 urtean?

Ez, kontribuzioaren gaineko zergaren bidez ordaintzen dena aldatu egin daiteke urtetik urtera, bi arrazoi direla medio:

1. Katastro-balioak urtero birkalkulatu dira. Bi faktoreren arabera alda daitezke:
 - Eraikinen antzintasuna, haien balioa pixka bat jaitsarazten duena
 - Lurzoruaren edo eraikinetan gerta daitezkeen aldaketak, hala nola zaharberritzeak, erabilera aldaketak...Landa-lurzati batean ohikoa da balio bera izatea hainbat urtez jarraian.
2. Kontribuzioagatik ordaintzen dena katastro-balioaren arabera da, baina era berean udal bakoitzak bere udalerrian ezartzea erabakitzen duen "zerga-tasa" aplikagarriaren arabera ere, betiere legez ezarritako tartearen barnean.

Nire udalak kontribuzio-zergaren zerga-tasa aukeratu dezake?

Ez, hori ere Foru Lege batek arautua dago. Zerga-tasak % 0,25etik % 0,50era bitartekoa izan behar du. Hori horrela da Nafarroa osoan. Udal batek % 0,25etik beherako zerga-tasa badu, foru araudiak behartzen du tasa hori igotzera, gutxienez % 0,25era iritsi arte. Berriobeitiko % 0,2264ko zerga-tasa du, gaur egun. Urtebetean, foru legeak ezartzen duena bete eta hartara egokitu behar du, hau da, ehuneko 0,0236 puntu igo behar du.


JASANGARRITASUNA / SOSTENIBILIDAD

Berriz ere egingen da zuhaitzak babesteko kanpaina

Udalak beste kanpaina bat egingen du uda honetan zuhaitzak babesteko. Interesdunek zuhaitz bana babesteko dute eta, horretarako, zuhaitza aukeratu eta udalak emanen dien kartelean izen bat idatzi behar dute, bakoitzak nahi duena. Halaber, zuhaitz hori zaintzeko konpromisoa hartu behar dute, astean bi litro urarekin



ureztatzeko. Horrela, ohartuko gara erabiltzen dugun urak beste aprobetxamendu bat izan dezakeela, bota aurretik. Kontua ez da ur gehiago gastatzea, baizik eta dutxa irekitzean ur beroa iritsi arte erabiltzen duguna biltzea, edota edan ondoren sobratzen zaiguna, jarduera fisikoren bat egin eta gero, adibidez. Ur hori "gure zuhaitzerako" erabiliko dugu. Kanpainari buruzko informazio guztia emateko, bilera bat egingen da. Ohiko bideak erabiliko dira bilera noiz eta non egingen den jakinarazteko, hau da, udal weba eta udalaren sare sozialak.



Regresa la campaña para apadrinar un árbol

El Ayuntamiento volverá a lanzar este verano una nueva campaña para apadrinar un árbol. Las personas interesadas tan sólo tendrán que elegir el árbol que quieren apadrinar, ponerle un cartel que le facilitará el consistorio con el nombre que quieren darle, y comprometerse a cuidar "su árbol" con dos litros de agua a la semana. El riego servirá para concienciarnos de que el agua que utilizamos puede tener un aprovechamiento antes de ser desechada. No se trata de gastar más agua sino de recoger la que usamos cuando abrimos la ducha para que llegue agua caliente o la que nos sobra después de beber, tras la realización de una actividad física, por ejemplo. Esta agua la usaremos para "nuestro árbol". Para facilitar toda la información relativa a la campaña, se convocará una reunión cuyos detalles se darán a conocer a través de los canales de comunicación habituales (página web municipal y redes sociales).

GASTO MANCOMUNADO / GASTU MANKOMUNATUA



Un fondo de material común para fiestas

Material funts bateratua herriko festetarako

Hainbat bilera egin dituzte udalerriko hamar kontzejuek Udalarekin eta, azkenean, material funts bateratua sortzea erabaki da, zendeako herri guztietako festetan erabiltzeko.

Bizilagun kopuruaren arabera, herri bakoitzak mahai eta aulki kopuru jakin bat jarriko du. Guztira, kontzejuen artean, 500 aulki eta 70 mahai bilduko dira, bai eta mahaiak eta aulkiak garraiatzeko gurdiak ere. Horrelako altzariak dituzten kontzejuek funts horretara ekarriko dituzte, eta halakorik ez dutenek, erosiko dituzte. Udalak, bestalde, karpa, eszenatokiak eta soinu-tresneria jarriko ditu. Eta material guztia gorde eta garraiatzeaz ere arduratuko da. Beharrezkoa bada, are altzari gehiago ekarriko dira funtsera.

Funtsaren bidez, elkarlana sustatu nahi da, herri guztien onerako izanen baita, herrien jabetzapeko materiala herri guztien-dako egonen baita erabilgai.

Tras varias reuniones mantenidas entre los diez concejos del municipio y el Ayuntamiento, se ha creado un banco común de material para su uso durante las fiestas de todos los pueblos.

En función de la población, cada localidad aporta un número determinado de mesas y sillas. En total, los concejos aportarán 500 sillas y 70 mesas con los carros correspondientes para transportarlas. Los que tenían mobiliario lo depositarán en el fondo y los que no dispongan de material lo comprarán. El Ayuntamiento, por su parte, aportará la carpa, los escenarios y el equipo de sonido. También se encargará de guardar todo el material y de transportarlo. En caso necesario, se realizaría una ampliación de material. El objetivo de poner en marcha este fondo común es promover un trabajo conjunto, que repercuta favorablemente en todos los pueblos y que permita disponer de un material de todos y para todos los concejos.

IRMA / BERRIOBEITIKO AHOTSA

ACUERDOS CON ENTIDADES / HITZARMENA HAINBAT ERAKUNDEREKIN

Convenios con clubes deportivos y culturales

El Ayuntamiento ha firmado tres convenios con el **Club Navarro de Lucha** (4.500 euros), **Articapatin** (4.000 euros), y **Berritxaco** (4.500 euros) para la realización de actividades deportivas infantiles extraescolares. Asimismo, la **coral Ametza** (4.500 euros) ha rubricado un acuerdo con el Consistorio para su participación en diversos actos culturales y festivos que tengan lugar en el municipio de Berrioplano.

Convenio con los colegios públicos de Berriozar

Por otro lado, el Ayuntamiento ha firmado un convenio con los colegios públicos de Berriozar **Mendialdea I** y **Mendialdea II** para asignar una partida de 1.000 euros a cada centro para la realización de actividades complementarias (salidas, excursiones...).

Hitzarmena hainbat erakunderekin

Udalak hiru hitzarmen sinatu ditu erakunde hauekin: **Club Navarro de Lucha** (4.500 euro), **Articapatin** (4.000 euro), eta **Berritxaco** (4.500 euro), eskolaz kanpoko kirol ekitaldiak egiteko haurrendako. Era berean, **Ametza abesbatzak** (4.500 euro) hitzarmena egin du Udalarekin, kultur eta jai giroko hainbat ekitalditan parte hartzeko, guztiak ere Berriobeitiko udalerrian egiteko.

Hitzarmena Berriozarko ikastetxe publikoekin

Udalak, bestalde, hitzarmena sinatu du Berriozarko **Mendialdea I** eta **Mendialdea II** ikastetxeekin, haietako bakoitzari 1.000 euro emateko, jarduera osagarriak egite aldera (irteerak, txangoak...).

BISITALDIA / VISITA

Nafarroako ordezkari sahararren bisitaldia

Visita de los representantes de la Delegación Saharaui en Navarra



Joan den apirilaren 12an, **Félix Remírez** Berriobeitiko alkateak eta **Javier Vallez** gizarte politika, berdintasun eta osasun alorreko zinegotziak Nafarroako ordezkari sahararrak hartu zituzten. Besteak beste, sahararrek Nafarroan duten ordezkari berria joan zen bisitan, **Hamdi Omar Ahmed**, bai eta **Mohamed Gailani** azpiordezkaria ere. Beren burua aurkezteaz gain, ordezkari sahararrek biziki eskertu zuten Berriobeitiko udalerriak 2010az geroztik ematen dien babesa eta elkartasuna, Artika Berriko udal etxebizitza bat laga baitie haien beharretarako. Zahazki, bertan bulegoa dute eta ordezkaria eta azpiordezkaria bizi dira.

El pasado 12 de abril el alcalde de Berrioplano, **Félix Remírez**, y el concejal delegado de Política Social, Igualdad y Sanidad, **Javier Vallez**, recibieron la visita de una representación de la Delegación Saharaui en Navarra, encabezada por su nuevo delegado, **Hamdi Omar Ahmed**, y el subdelegado **Mohamed Gailani**. Además de para presentarse, los representantes saharauis aprovecharon la visita para agradecer la solidaridad y el respaldo que desde 2010 les brinda el municipio de Berrioplano con la cesión de una vivienda municipal situada en Nuevo Artica. Este local sirve como oficina y como residencia del delegado y del subdelegado.

DEMOSTRACIONES / ERAKUSTALDIK



**Parte-hartze handia
Kirolaren Egunean**

**Éxito de participación
en el Día del Deporte**

Se celebró el sábado 11
y el domingo 12 de mayo
en Artica y Berrioplano

Maiatzaren 11 eta 12ko
asteburuan egin zen,
Artikan eta Berriobeitin

La edición de este año del Día del Deporte ha sido muy satisfactoria. Se dio, en general, una participación muy alta, sobre todo en los juegos populares de la mañana en Artica de la mano de los clubes deportivos, Berritxaco, Articapatin y Korrikolaris. En las exhibiciones del frontón de Berrioplano la participación a lo largo la tarde rondó los 400 niños y niñas y fue muy alta la afluencia de público toda la tarde. Este año se recuperó la exhibición del grupo de sincronizada en las piscinas. Participaron todos aquellos de-

portes de las escuelas de Artica y Berrioplano más apropiadas para la exhibición. En cuanto las actividades en la Ciudad Deportiva de Artica, todas las programadas salieron adelante, a excepción del Body Combat. A causa del mal tiempo, por la mañana las clases de spinning y zumba se impartieron en interior, y por la tarde el swing y los bailes latinos en el bar, donde se generó muy buen ambiente gracias a la colaboración del local y a la gran afluencia de gente.



Aurtengo Kirolaren Eguna ederki atera da. Oro har, jende askok parte hartu zuen; batez ere, goizeko herri jokoetan, Artikan, Berritxaco, Articapatin eta Korrikolaris klubean eskutik. Berriobeitiko pilotalekuan egindako erakustaldietan, bestalde, 400 haur inguruk parte hartu zuten arratsaldean, eta ikusleak ere erruz

bildu ziren arratsalde osoan. Iaz ez bezala, aurtengo sinkronizatuaren taldearen erakustaldia ere egin da igerilekuan. Azken finean, Artikako eta Berriobeitiko eskoletako kirol guztiak parte hartu zuten, erakustaldiak egiteko proposenak diren horiek, alegia. Artikako Kirol Hirian antolatutako jarduera guz-

tia ere egin ziren, Body Combat izan ezik. Bestalde, eguraldi txarra zela eta, goizean spinning eta zumba saioak barnealdean eman ziren eta, arratsaldean, swing eta dantza latinoak, tabernan, oso giro ona sortuta, tabernaren elkarlanari esker eta jende asko bildu izanari esker.

**GARIKOITZ LERGA,
2024KO Kirol Saria**

Aurtengoan, Udalak Garikoitz Lerga abiadura-patinajeko entrenatzaile nazionalaren lana hartu du aintzat. Izan ere, Artikako bizilagunak munduko 12 txapelketatan parte hartu du hautatzaile nazional gisa, 2009tik honat, 46 domina eskuratuta, haietako batzuk nafar patinatzaileek lortuak. Haien artean nabarmentzekoak dira Joseba Fernández nafar patinatzaileak munduko txapelketetan eskuratutako 5 urreak eta Ruth Arza nafar patinatzaileak 2022ko Buenos Airesko mundialean lortutako zilarrezko domina. 2009az geroztik, Nafarroako Abiadura Patinajeko goi-errendimenduko zentroan dabil buru.



**GARIKOITZ LERGA,
Premio del Deporte 2024**

En esta edición, el Ayuntamiento reconoció la labor del entrenador nacional de patinaje de velocidad Garikoitz Lerga. Este vecino de Artica ha participado en 12 mundiales como seleccionador nacional desde 2009, donde han conseguido 46 medallas mundiales, varias de ellas de patinadores navarros. Entre ellas destacan las 5 medallas de oro obtenidas en campeonatos del mundo por el patinador navarro Joseba Fernández y la medalla de plata conseguida por la patinadora navarra Ruth Arza en el mundial de Buenos Aires en 2022. Desde el 2009 está al frente del Centro de alto rendimiento de Patinaje de Velocidad de Navarra.

UDALAREN JUDO TAILERRA
CLUB NAVARRO DE LUCHA

TALLER MUNICIPAL DE JUDO
CLUB NAVARRO DE LUCHA



JUNIO 2024 / 2024 EKAINAK 12 BERRIOPLANO INFORMA / BERRIOBEITIKO AHOTSA

Una treintena de niños y niñas de entre 5 y 13 años practica judo los lunes y miércoles en el Edificio Multiusos de Berrioplano. Una disciplina deportiva de origen japonés que mejora su agilidad, fuerza, coordinación y disciplina.

Diversión, aprendizaje y compañerismo en el tatami

Josteta, ikaskuntza eta laguntasuna tatami gainean

5 urtetik 13ra bitarteko hogeita hamar haur inguruk egiten dute judoa astelehen eta asteazkenetan, Berriobeitiko Erabilera Anitzeko Eraikinean. Japoniakoa jatorriz, oso kirol aproposa da indarra, arintasuna, koordinazioa eta diziplina hobetzeko.

Nada más pisar el tatami, los chicos y chicas que han acudido a su clase de judo en Berrioplano realizan un *Rei*, palabra japonesa que significa saludo. Un gesto de respeto y agradecimiento hacia el compañero que vuelve a repetirse al finalizar la sesión. Con esta inclinación muestran, de una manera sencilla, el

Tatamia zapaldu bezain laster, Berriobeitiko judo eskolara dozen hurrek *Rei* bat egiten dute, hau da, agurra, horixe baita japonierazko hitz horren esanahia. Errespetuzko eta esker oneko keinua da lagunarekiko eta, saioa bukatzean, berriz ere egiten dute. Gorputza makurtuz, apalki erakusten dute

vínculo de hermandad que les une y la aceptación de unas reglas comunes. Porque más allá del combate y del trabajo físico y de defensa personal que se realiza, el judo implica preparación mental. Requiere un alto nivel de concentración que no siempre se consigue. **Irati Telletxea** lo sabe muy bien. Acaba de venir del XXXII Torneo Internacional de Andorra la Vella. “Había mucho nivel y, cuando compites, aparecen los nervios. Había preparado una técnica nueva, pero tengo que concentrarme más, no me salió”. Irati decidió adentrarse en el mundo de las artes marciales porque era un deporte diferente y se impartía en Berrioplano. De su primer contacto con el judo han pasado diez años y en su camino ha atraído a su hermana **Garazi**, que también forma parte del grupo de los mayores. “Vi que mi hermana hacía judo y quise probar. Me gusta sobre todo la lucha (*Randori*) y aprender nuevas técnicas. La concentración la llevo bien, pero en los torneos me pongo nerviosa. Yo animo a practicar judo porque se lo van a pasar muy bien”.

Un profesor con un medallero que no para de crecer

Desde 2005, el **Club Navarro de Lucha** imparte las clases en colaboración con el Ayuntamiento de Berrioplano. Actualmente hay dos grupos, uno de pequeños (de 5 a 9 años) y otro de mayores (desde 9 a 13 años), y todos ellos tienen la suerte de poder aprender de uno de los mejores, **Ibai Gracia**, ganador de varias medallas en campeonatos nacionales e internacionales, entre ellas, dos bronce en el Campeonato europeo de Sambo disputado en Serbia en 2022 y en la European Open de Judo de la República Checa de 2023 y un oro en el Campeonato de España de Sambo de 2021. Nos comenta que su



alumnado le sigue en los torneos. “Les suelo enviar el enlace para que me vean. Para ellos es una motivación”.

Uno de los alumnos que ha conseguido motivarse es **Ander Zafra**. Es cinturón naranja y los combates son su gran pasión. Lleva siete años practicando judo y el esfuerzo y perseverancia ya han empezado a dar

senidetasunezko lotura batek baturik ari direla eta guztiendako arauak onartzen dituztela. Izan ere, borrokaz, lan fisikoaz eta defentsa pertsonalaz haratago, judoak prestaketa mentala dakar berarekin. Kontzentrazio maila handia behar da, eta hori ez da beti lortzen. **Irati Telletxeak** ederki daki hori. Andorra la Vellako Nazioarteko XXXII. Txapelketatik heldu berri da. “Maila handia zegoen eta, lehian ari zarenean, nerbioak agertzen dira. Teknika berria prestatua nuen, baina gehiago kontzentratu behar dut, ez zitzaidan atera”. Iratik defentsa-arteetan munduan sartzea erabaki zuen, judoa beselako kirola zelako eta Berriobeitin irakasten zelako. Hamar urte joan dira judoarekin lehen harremana izan zutenetik eta, ibilbidean, **Garazi**, ahizpa erakarri du, eta hura ere handien taldean dago. “Ikusi nuen ahizpak judoa egiten zuela eta probatu nahi izan nuen. Batez ere borroka (*Randori*) gustatzen zait eta teknika berriak ikastea. Kontzentrazioan ongi moldatzen naiz, baina torneoetan nerbiosten naiz. Nik judoa egitera animatzen dut jendea, ederki pasatuko dutelako”.

Irakaslea, gero eta domina gehiagoren jabea

2005etik aurrera, Berriobeitiko Udalarekin elkarlanean ematen dituzten eskolak Club Navarro de Lucha-k. Gaur egun, bi talde daude: txikiak (5-9 urte) eta handiak (9-13 urte), eta guztiek ere badute onenetako batengandik ikasteko zoria, **Ibai Gracia**. Ibaik hainbat domina irabazi ditu estatuko eta nazioarteko txapelketetan; besteak beste, bi brontze Europako Sambo txapelketan, 2022an Serbian jokatuakoa, eta Txekiar Errepublikako European Open izeneko judo lehiaketan, eta urte bat Espainiako Sambo txapelketan, 2021ean. Ibaik esan digu ikasleak adi daudela zer egiten duen: “esteka bidaltzen diet, ikus nazaten. Haienezat, gauza motibagarria da”. Motibazioa hazi zaion ikasleentako bat **Ander Zafra** da. Gerriko laranja da eta, oroz gain, borrokak maite ditu. Zazpi urte daramatza judoan, eta ahalegina eta gogoa fruituak ematen hasi dira. Bigarrena izan da Andorrako Nazioarteko Txapelketan: “Oso pozik nago, lehiaketak gustukoak ditudalako. Oso ongi prestatua nindoan, baina nire aurkaria oso indartsua zen; ondorioz, ezin izan nuen lehen postua lortu”.



GARAZI TELLETXEA

“Me gusta sobre todo la lucha (*“Randori”*) y aprender nuevas técnicas. La concentración la llevo bien, pero en los torneos me pongo nerviosa. Yo animo a practicar judo porque se pasa muy bien”.

GARAZI TELLETXEA

Batez ere borroka (*“Randori”*) gustatzen zait eta teknika berriak ikastea. Kontzentrazioan ongi moldatzen naiz, baina torneoetan nerbiosten naiz. Nik judoa egitera animatzen dut jendea, ederki pasatuko dutelako”



sus frutos. Fue segundo en el torneo internacional de Andorra. “Estoy muy contento porque las competiciones me gustan. Me había preparado muy bien, pero mi rival era muy fuerte, así que no pude conseguir la primera posición”.

Para **Marc Moreno** este año está siendo especial. Está estudiando en Bayona y, aunque sigue practicando en Francia, no ha querido desaprovechar sus dos semanas de vacaciones para asistir a las clases de Ibai. “Me llamó la atención porque es un deporte que se hacía en Berrioplano y a mí me gusta el deporte. Estoy muy contento con la evolución, se han cumplido todas mis expectativas”.

Mucho más que beneficios físicos

Gracia cree que la práctica del judo conlleva muchos beneficios. Mejora la agilidad, la flexibilidad, la fuerza y la coordinación. “Se ve la evolución que experimentan. Cuando llegan, no saben hacer una voltereta y luego la hacen sin esfuerzo. Lo primero que les enseño es a saber caer. Es muy importante controlar las caídas, no solo en el judo sino en el día a día. Y, sobre todo, les invito a pasárselo bien y a divertirse. Si luego se enganchan, podrán participar en competiciones, pero no tiene que ser el objetivo”.

Dos de las nuevas incorporaciones son **Maialen Etxebarria** y **Mario López**. La benjamina de la clase, Maialen, lo tiene claro. “Me gusta la lateral, se me da bien. Además, me lo paso muy bien con mis compañeros y compañeras”. También a Mario le gusta el judo y es mejor de lo que pensaba. “El saludo es mi parte preferida”.

Precisamente, la disciplina es otro de los pilares de esta actividad. A través del saludo se potencian valores como el respeto y el compañerismo. Todas las clases comienzan y finalizan con el saludo. Después, se realiza un calentamiento para mover las articulaciones, los hombros y el cuello y, una vez movilizado el cuerpo, comienza el trabajo de coordinación (fuerza, agilidad, flexibilidad). A continuación, llega el momento más esperado, el *Randori* o lucha, y finalmente, los juegos. Sesiones muy variadas en las que la diversión está asegurada.

Marc Moreno entzatzat, urte berezia izaten ari da. Baionan dabil ikasten eta, Frantzian judoa egiten badu ere, bi asteko oporraldia baliatu nahi izan du Ibairen eskolara joateko: “Arreta erakarri zidan, kirola Berriobeitin egiten zelako, eta nik kirola gustukoa dudalako. Pozik nabil bilakaerarekin, nire espektatiba guztiak bete baitira”.

Onura fisikoak baino askoz ere gehiago

Graciaren iritziz, judoa egiteak onura aunitz dakartza. Oso egokia baita arintasuna, indarra eta koordinazioa hobetzeko. “Ikusten da zer-nolako bilakaera izaten duten. Iristen direnean, ez dakite itzulipurdirik ere egiten, eta gero, ahaleginik gabe egiten dute. Lehenik, erortzen irakasten diet, hau da, nola erori. Oso garrantzitsua baita erorikoak kontrolatzea, ez soilik judoan, baita eguneroko bizitzan ere. Eta, batez ere, ongi pasatzera eta dibertitzera gonbidatzen ditut. Gero judoak harrapatzen baditu, lehiaketetan parte hartuko dute, baina horrek ez luke helburua izan behar”.

Maialen Etxebarria eta **Mario López** sartu berri dira. Txikiena Maialen da eta oso argi dauka. “Albokoak gustatzen zait, ongi moldatzen naiz. Gainera, klasekideekin primeran pasatzen dut”. Mariok ere gustukoa du judoa eta uste baino hobea da: “Agurra gustatzen zait gehien”.

Hain zuzen ere, jardueraren beste zutabeetako bat diziplina da. Agurraren bidez, errespetua, laguntasuna eta beste balio batzuk sustatzen dira. Saio guztiak agurrarekin hasi eta bukatzen dira. Gero, berotze lana egiten da, artikulazioak, sorbaldak eta lepoa mugitzeko. Eta, behin gorputza piztua duzunean, koordinazio lana hasten da (indarra, arintasuna, malgutasuna). Ondoren, gehien espero den una iristen da, *Randori* edo borroka, eta azkenean, jokoak. Saioak askotarikoak izaten dira eta dibertsioa ziurtatua dago.



OSPAKIZUNA / CELEBRACIÓN

Euskararen jaia,
arrakastatsua zinez

Jaiaren aurreko astean hainbat jarduera antolatu ziren Añezkarren, Artika Berrin eta Aitzoainen, baina egun nagusia maiatzaren 25a izan zen, larunbata, Elkartean. Goizean, herriko karririk jendez bete ziren, erraldoiak, dantzak eta herri-kiriolak ikusteko.

Arratsaldeko ekitaldiak, berriz, pilotalekuaren ondoko zelaian egin ziren, inguru ederrean, jende guztiak nabarmendu zuen bezala. Herri bazkarian, 250 lagun bildu ziren eta, arratsalde osoan, haurrak eta helduak gozoz aritu ziren jostetan, kantuan eta dantzan.

Éxito de la fiesta
del Euskera

Goizean, BES elkarteak omenaldi hunkigarria egin zion Joseba Gil zenari, hau da, herri horretako bizilagun, elkarte horretako kide eta udaleko zinegotzi izandakoari. 2022an zendu zen.



La semana previa se organizaron diversas actividades en Añezcar, Nuevo Artica y Aizoáin, pero el día grande fue el sábado 25 de mayo en Elcarte. Por la mañana las calles del pueblo se abarrotaron de gente que disfrutó de los gigantes, las danzas y del deporte rural.

Los actos de la tarde se celebraron en la campa contigua al frontón, en un entorno muy elogiado por todas las personas participantes. En la comida popular 250 comensales y durante toda la tarde peques y mayores disfrutaron de la fiesta jugando,

cantando y bailando.

Al inicio de la jornada festiva, BES realizó un sentido homenaje al que fuera vecino y miembro de esta asociación, además de concejal del Ayuntamiento, Joseba Gil, fallecido en 2022.

AYUDAS MUNICIPALES AL EUSKERA / EUSKARARENDAKO UDAL LAGUNTZAK

Subvenciones para los
campamentos de verano

Un año más, el Ayuntamiento convoca las becas para los campamentos de verano en euskera que se desarrollan fuera del municipio de Berrioplano. Las **solicitudes** podrán presentarse **del 1 al 30 de septiembre** en el Registro Municipal. La ayuda se concederá en función de la renta y oscilará entre el 20 y el 70% del importe total del campamento. *Más información en el Servicio de Euskera (948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

Udalekuetarako
dirulaguntzak

Aurten ere, Udalak udalekuetarako beka-deialdia plazaratu du, hau da, Berriobeitiko udalerritik kanpo egiten diren udalekuetan parte hartzen dutenei dirulaguntza emateko deialdia. **Eskabideak irailaren 1etik 30era** bitarte aurkezten ahalko dira Udal Erregistroan. Laguntza emateko orduan, errenta hartuko da kontuan, eta udalekuaren zenbateko guztiaren % 20tik 70era bitartekoa izanen da. *Argibideak, Euskara Zerbitzuan (948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

Euskara ikasteko
laguntzak

2023ko uztailearen 1etik 2024ko ekainaren 30era bitarte euskara eskolatan parte hartu duten Berriobeitiko udalerritik bizilagun guztiak izanen dute laguntza eskatzeko aukera. Epea heldu den **uztailearen 5ean itxiko da** eta eskabideak Udal Erregistroan aurkeztuko dira. Laguntza errentaren arabera emanen da eta zenbateko guztiaren % 20tik 70era bitartekoa izanen da. *Argibideak, Euskara Zerbitzuan (948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

Ayudas por
estudiar euskera

Todas las personas vecinas del municipio de Berrioplano que hayan asistido a clases para aprender euskera entre el 1 de julio de 2023 y el 30 de junio de 2024 podrán solicitar una subvención **hasta el próximo 5 de julio** en el Registro del Ayuntamiento. Las ayudas se concederán en función de la renta y pueden ir desde el 70 al 100% del importe total. *Más información en el Servicio de Euskera (948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

UDAKO KANPALDIAK / CAMPAMENTOS DE VERANO

Leku libreak udako kanpaldietan

Epe berezia zabalduko da udako haur kanpaldietan izana emateko, hots, **uztailaren 2a** izanen da. Izan ere, leku librerik bada 2. txandan (uztailaren 15etik 31ra, uztailak 25 eta 26 jaiegunak dira), 3. txandan (abuztuaren 1etik 14ra) eta 4.ean (abuztuaren 19tik 30era).

Lekua eskatzeko eskaria 012 Infolokal telefonoaren bidez egingen da (**948 012 012**). Izen-ematea eta ordainketa, bi-biak, zuzenean egingen dira, dei hurrenkeraren arabera.

Plazas libres en los campamentos de verano

Los campamentos urbanos infantiles de verano abrirán una nueva fecha de inscripción el **2 de julio** para completar las plazas que hayan quedado libres una vez finalizado el proceso inicial. Esta inscripción extraordinaria será válida para la tanda 2 (del 15 al 31 de julio, 25 y 26 de julio festivos), tanda 3 (del 1 al 14 de agosto) y 4 (del 19 al 30 de agosto).

Las solicitudes de plaza se realizarán a través del teléfono 012 Infolocal (**948 012 012**). La inscripción y el pago serán directos por orden de llamada.

BERRIOBEITIKO AHOTSA

SENIDETASUNEZKO JAIA / FIESTA DE HERMANDAD



Zendearen Eguna, irailaren 28an Ballariainen

Heldu den irailaren 28an, berriz ere elkartuko dira Berriobeitiko udalerriko hamar herriak Zendearen Eguna ospatzeko. Aurten, Ballariainen. Denetarik ekitaldiak prestatuko dira, hala nola herri bazkaria (txartelak irailaren 16tik 20ra, salgai), musika emanaldiak eta bestelakoak, urtero egun horretan egin ohi direnak. Egitarau osoa udan emanen da ezagutzera, ohiko kanalen bitartez (udal sareak eta weba).

El Día de la Cendea, el 28 de septiembre en Ballariain

El próximo 28 de septiembre los diez concejos del municipio de Berrioplano volverán a reunirse para celebrar el Día de la Cendea, este año en Ballariain. No faltarán la tradicional comida popular (venta de tickets, del 16 al 20 de septiembre), los espectáculos musicales y otras actividades fijas de esta jornada. La programación completa se dará a conocer a lo largo del verano por los canales de comunicación habituales (redes y web municipal).

DIRULAGUNTZAK / SUBVENCIONES

Laguntzak kultur, kirol eta gazte xedeetarako


Erakunde bakar bat aurkeztu da 2024ko kultur, kirol eta gazte xedeetarako laguntza-deialdira, San Isidro kabalgata elkarte, Berriobeitiko erregeen kabalkada antolatzen duen elkarte, alegia. Laster, Udalak proposamena aztertu eta laguntza ebatziko du.

Udalak otsailaren 22ko NAO aldizkarian argitaratu zuen deialdia, eta elkarteek 30 egun naturaleko epea izan zuten eskaria aurkezteko, hura NAOan argitaratu zenetik aitzina. Gogoratu behar da diruz laguntzen ahal diren gastuen kostuaren % 70 ematen dela gehienez, eta gastuak behar bezala justifikatu behar direla.

Ayudas para fines culturales, deportivos y de juventud

La asociación Cabalgata San Isidro, encargada de la Cabalgata de Reyes de Berrioplano, ha sido la única entidad que se ha presentado a la convocatoria de ayudas para fines culturales, deportivos y de juventud de 2024. Próximamente, el Ayuntamiento estudiará la propuesta y resolverá su concesión. El consistorio publicó la convocatoria en el BON del 22 de febrero y las asociaciones interesadas dispusieron de 30 días naturales para realizar la solicitud desde su publicación en el BON. Hay que recordar que la aportación económica asignada no superará el 70% del coste de los gastos subvencionables y debidamente justificados.

PROGRAMACIÓN D



Antzerkia, zinema eta magia, udan

TEATRO / ANTZERKIA

“Welcome & Sorry”

GANSO & CIA

Viernes 2 de agosto, 18:00, frontón de Larrageta

Todos los públicos / 50 min

Abuztuak 2, ostirala, 18:00, Larragetak pilotalekua

Jende guztiarendako / 50 min

Dos actores representan “Hamlet” con total fidelidad al original. Abordar el trabajo de una docena de artistas y técnicos, el representarla en la lengua de Shakespeare, la falta de talento y habilidades no serán impedimento, ¿o sí? Si William levantara la cabeza... orgulloso no estaría, pero, al menos, se echaría unas risas.

Bi antzezlek “Hamlet” antzezten dute, hasierako testuari erabat fidel. Hor dabilta dozena bat artista eta teknikari lanean, antzezlana Shakespeareen hizkuntzan emateko, talentuz eta trebetasunez ez oso jantziak. Baina hori ez da oztoporik izanen, edo bai? Williamek burua altxatuko balu... ez legoke harro, baina, gutxienez irri eginen luke.

MAGIA

“Sergius Show”

SERGIO DE ANDRÉS

Viernes 6 de septiembre, 18:00, frontón de Añezcar

Todos los públicos / 60 min

Irailak 6, ostirala, 18:00, Añezkarko frontoia

Jende guztiarentzat / 60 min

Un espectáculo cómico de magia para todos los públicos. Muchísima participación y humor en una hora para reír, sorprenderse y alucinar. “Abra cadabra, magia potagia”.

Jende guztiarendako magia ikuskizuna da. Jendeak erruz parte hartuko du, umore handia plazan, eta orubete luzea barre egiteko, harrizteko eta zur eta lur gelditzeko.

CINE / ZINEMA

“Astérix y Obélix y el Reino Medio”

Sábado 10 de agosto, 22:00, plaza de Oteiza

No recomendada para menores de 7 años/ 111 minutos

Abuztuak 10, larunbata, 22:00, Oteitzako plaza

Ez dago gomendatua 7 urtetik beherakoentzat / 111 min

En China han encarcelado a la Emperatriz y su hija huye a la Galia para pedir ayuda a Astérix y Obélix. La pareja acepta ayudarlo a liberar a su madre y a su país y emprenden viaje rumbo a China. Pero no son los únicos. César y su poderoso ejército, sedientos de conquista, también se dirigen hacia el Reino Medio...

Txinan enperatriza espeteratu dute, eta haren alabak Galiara ihes egin du, Asterixi eta Obelixi laguntza eskatzeko. Bikoteak onartzen du haren ama eta herrialdea askatzen laguntzea eta Txinarantz abiatzen dira. Ez dira bakarrak, ordea. Cesar eta haren armada ahaltsua ere Erdiko Erresumarantz abiatu dira, konkista gosez...

TEATRO / TEATRO

“Dale Ramón”

TRAPU ZAHARRA

Domingo 8 de septiembre, 18:30, plaza de Elcarte

Todos los públicos / 60 minutos

Irailak 8, igandea, 18:30, Elkarteko plaza

Jende guztiarentzat / 60 min

Ante un inminente colapso, Bunkerizados Ortiz lanza su producto estrella: bunkers de alto standing, y para promocionarlos organiza un concurso con un bunker como premio. El concursante Ramón Uriarte se someterá a diferentes pruebas para lograrlo y el público hará sus apuestas. Al final, nada será lo que parece...

Teatro, cine y magia “toman” el verano

CINE / ZINEMA

“Lilo, mi amigo el cocodrilo”

Sábado 17 de agosto, 22:00, plaza de Nuevo Artica

Todos los públicos/ 106 minutos

Abuztuak 17, 22:00, Artika Berriko plaza

Jende guztiarentzat / 106 min

Josh es un adolescente recién instalado en Nueva York al que le está costando adaptarse a su nueva vida. Todo cambia cuando se hace amigo de Lilo, un cocodrilo cantante. Josh y su familia tendrán que aliarse con el carismático dueño de Lilo cuando la vida del cocodrilo se ve amenazada por las malas intenciones de un vecino. Su unión en una peculiar familia podrá con todo.

Josh nerabea New Yorkera joan berri da bizitzera eta nekoso zaio bizitza berrira egokitzea. Dena aldatzen da, ordea, Liloren laguna egiten denean. Lilo krokodilo kantaria da. Joshke eta senideek Liloren jabe karismadunarekin batera ekin beharko diote, auzokide baten asmo gaiztoek krokodiloaren bizitza mehatxupean jartzen dutenean. Elkarrekin ekinez, familia berezi horrek denari eginen dio aurre.

Berehalako kolapsoaren aurrean, Bunkerizados Ortiz-ek produktu izar bat merkaturatu du: standing altuko bunkerrak, eta lehiaketa bat antolatu du produktu berria sustatzeko, bunker bat sari. Ramón Uriarte lehiakideak hainbat proba eginen ditu saria erdiesteko, eta publikoa apustutan arituko da. Azkenean, deus ez da izanen dirudiena...

TEATRO / ANTZERKIA

“Kinki Games” AMICO

Viernes 23 de agosto, 18:30, frontón de Berriosuso

Todos los públicos / 60 min

Abuztuak 23, ostirala, 18:30, Berriogoitiko pilotalekua

Jende guztiarentzat / 60 min

Ion Amico y Txori Amico siguen a su rollo. Al ritmo de la música, estos dos atletas de la compraventa llegarán al frontón de Berriosuso para compartir su catálogo de cachivaches, emoticonos y unas cuantas pruebas deportivas. Este es un espectáculo de humor y muchas risas con acento italiano ¡Avanti!

Ion Amico eta Txori Amico ohiko moduan dabilta. Musikak giroturik, salerosketaren bi atleta horiek Berriogoitiko frontoira iritsiko dira beren tramankulu katalogoa, emotikonoak eta hainbat kirol proba partekatzeko. Umorea eta barreak ugari, Italiako azentuarekin. Avanti!

MAGIA

“El arte de sorprenderte”

MAGO HODEI

Viernes 13 de septiembre, 18:30, Loza (carpa)

Todos los públicos / 75 minutos

Irailak 13, ostirala, 18:30, Lotza (karpa)

Jende guztiarentzat / 75 min

Langa oso goian dago. Hodei Magoak eta haren laguntzaileek 500 barre-une agindu dituzte orubete pasatxoko magia-saioan, erritmoz beterik, umore handiz, sorpresaz josirik, eta soinu-banda landuarekin. Magoen dilema izanen da mintzagai: ilusioa da? engainua da? nork daki?

El listón está muy alto. Mago Hodei y su ayudante prometen 500 momentos de risa en algo más de una hora de magia con mucho ritmo, mucho humor, muchas sorpresas y una trabajada banda sonora. Se hablará del dilema de los magos: ¿Es ilusión?, ¿es engaño? ¿quién sabe?



“El encuentro” de la Casa de Cultura (Artica)

Desde hace 17 años, una escultura expresionista de mármol negro preside la plaza de la Casa de Cultura María de Maeztu (Artica). Se llama “El encuentro” y es obra del escultor madrileño **Juan Manuel Campos Mani**. Inaugurada en septiembre de 2007, tuvo muy buena acogida entre el vecindario de Artica, especialmente por sus formas agradables.

Juan Manuel Campos nació en Madrid, pero en 2003 se instaló, junto con su familia, en Artica. Tras una primera etapa centrada en la madera, decidió pasarse a la piedra y el mármol. La temática de su obra es humana. En sus esculturas predominan las formas humanas o las situaciones familiares y sociales, y las manos, como elemento de expresión y forma de lenguaje, son un rasgo distintivo de su obra. Y es que el objetivo de Campos siempre ha sido comunicar a través de las formas.

Artikako Kultur Etxeko “El encuentro” eskultura


17 urte daramatza marmol zurian egindako eskultura espresionista batek Artikako Kultur Etxeko plazan. “El encuentro” du izena eta **Juan Manuel Campos Mani** eskultore madrildarrak ondua da. 2007ko irailean inauguratua, Artikako jendeak begi onez hartu zuen, bereziki forma atseginak dituelako. Juan Manuel Campos Madrilén jaio baina, 2003an, Artikara etorri zen bizitzera, etxeko-

ekin batera. Hasieran, zura landu bazuen ere, gero harria eta marmola hartu zituen ardatz. Giza gaiak aukeratzen ditu. Izan ere, haren lanetan, giza formak edota familia eta gizarte egoerak dira nagusi. Eskuak, gainera, obraren ezaugarria dira, adierazpen elementu eta hizkuntza forma gisa. Camposen helburua beti izan baita formen bitartez komunikatzea.

CALLES DE LA CENDEA DE BERRIOPLANO BERRIOBEITI ZENDEAKO KALEAK

CALLE MARGARITA SALAS (ETXEBAKAR) / MARGARITA SALAS KALEA (ETXEBAKAR)

Al igual que ocurre en Nuevo Artica, las calles de la urbanización de Etxebakar también tendrán nombre de mujer. Tras un proceso participativo promovido por el Ayuntamiento de Berrioplano y el concejo de Artica, cinco de sus calles llevarán el nombre de mujeres que merecen ser recordadas por su contribución a la sociedad. Entre ellas se encuentra **Margarita Salas** (1938-2019), una de las mayores científicas españolas del siglo XX. Nació en Canero, Asturias, y se doctoró en bioquímica en 1963 por la Universidad Complutense de Madrid. Posteriormente, trabajó durante tres años con el Premio Nobel de bioquímica Severo Ochoa en la Universidad de Nueva



York. Más tarde regresó a España y fundó el primer grupo de investigación en genética molecular del país en el Centro de Investigaciones Biológicas del CSIC, en Madrid.

Entre sus logros destaca el descubrimiento de la *ADN polimerasa del virus bacteriófago phi29*, que permite amplificar millones de veces el ADN para poder ser analizado. Recibió numerosos galardones nacionales e internacio-

nales y fue, además, miembro de la Academia Nacional de Ciencias de Estados Unidos y miembro de la Real Academia Española.

Artika Berrin bezala, Etxebakar auzo berriko karriek ere emakume izena izanen dute. Izan ere, Berriobeitiko Udalak eta Artikako kontzejua herritarren artean sustaturiko prozesuaren ondorioz, bost karriak emakume izena izanen dute, haien izena eta izana oroitzea merezi baitu gizarteari egindako ekarpenagatik. Haien artean dago **Margarita Salas** (1938-2019), XX. mendeko emakume zientzialari espainiarrik handienetako bat. Caneron jaioa (Asturias), biokimikan doktoratu zen 1963an Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Gero, Severo Ochoa biokimikako Nobel saridunarekin lan egin

zuen hiru urtean, New Yorken. Ondotik, Espainiara itzuli eta genetika molekularra ikertzeko herrialdeko lehen taldea sortu zuen CSIC erakundeko ikerketa biologikoetarako zentroan, Madrilén.


Haren lorpenen artean dago *phi29 birus bakteriofagoaren ADN polimerasa* aurkitu izana, ADN milioika aldiz handitzea ahalbidetzen duena hori aztertu ahal izateko. Sari aunitz jaso zituen estatuan eta nazioartean eta, gainera, Estatu Batuetako Zientzia Akademia Nazionaleko eta Espainiako Errege Akademiako kide izan zen.



FAUNA

ESCRIBANO TRIGUERO

Le toca el turno al, seguramente, ave más *pesada* presente en la balsa de Loza. Y lo de *pesada* no es por su envergadura sino por lo persistente de su canto. En cuanto llega la época de reproducción, el escribano triguero se sube a lo alto de una mata y empieza a cantar, y así pasa muchas semanas. Y su canto y su posición en la planta son tan característicos que no hay confusión posible. Sin embargo, el escribano triguero, o simplemente *el triguero* no canta durante todo el año. Su época de canto comienza en enero y termina en julio. Eso sí, la intensidad y persistencia del canto depende del tiempo, de la época y de la presencia o no de otros machos cantarines en los alrededores, al fin y cabo, el canto nupcial es precisamente para eso, para llamar la atención y preparar las nupcias con las hembras más dispuestas.



Precisamente por esta costumbre de cantar fuerte y persistente, el escribano triguero es más reconocible en primavera, pero en realidad vive en la balsa de Loza durante todo el año. Prefiere los alrededores de la balsa, y, en particular, las líneas de matorrales de su zona perimetral. Los trigueros modifican mucho su comportamiento en invierno. También su canto, que cambia de forma drástica pasando a ser un canto de contacto. Lo realizan particularmente cuando se agrupan para ir a los dormideros invernales, comportamiento típico de esta especie y de otras especies de aves.

Como bien describe su nombre, el escribano triguero se alimenta principalmente de semillas y tiene un robusto pico a tal fin. En la época reproductora incorpora invertebrados a su dieta. La hembra pone 4-6 huevos y abandona el nido tan solo 7-10 días después. Puede hacer 2 o 3 puestas en la misma temporada.

Texto: Ignacio Deán (Sociedad de Ciencias Naturales Gorosti) **Fotografía:** Gonzalo Deán

GARI-BERDANTZA

Lotzako aintziran ziurrenera dagoen hegazti astunenaren txanda da gaurkoa. Eta astuna diogu, bai, baina ez handia delako, haren txioa luzea delako baizik. Izan ere, ugaltze garaia iritsi bezain laster, gari-berdantza sasi baten gainera igo eta kantuan hasten da, eta aste aunitz ematen ditu horrela. Haren txioa eta landarean duen kokapena, bi-biak, hain dira bereizgarriak, ez baitugu beste ezein txorirekin nahasiko.

Gari-berdantzak, ordea, ez du urte osoan kantatzen. Urtarrilean hasi eta uztailean bukatzen baitu. Hori bai, txioaren handi-txikia eta luzelaburra eguraldiaren eta garaia araberakoa izaten dira, eta inguruetan beste ar kantariak dabilzan edo ez. Azken finean, eztei-kantua horretarako baita hain zuzen ere, arreta erakartzeko eta prest dauden emekin ezteiak prestatzeko.

Ozen-ozen eta luze-luze kantatzeko ohitura horri esker, hain zuzen, nabarmenagoa egiten zaigu udaberriari, baina egia esateko, urte osoan bizi da Lotzako aintziran eta, bereziki, aintzira inguruko sasidean.

Gari-berdantzen portaera nabarmen aldatzen da negu partean. Txioa ere erabat ezberdina da, harreman-kantua izaten baita. Neguko lotokietara joateko elkartzeko direnean egiten dute bereziki, hori espezie horren eta beste hegazti-espezie batzuen portaera bereizgarria baita. Izenak berak dioen bezala, gari-berdantzak batez ere haziak jaten ditu eta, xede horretarako, moko sendoa du. Ugaltze garaian, ornogabeak ere jaten ditu. Emeak 4-6 arrautza erruten ditu, eta 7-10 egun geroago lekutzen da habitatiki. Denboraldi berean, bizpahiru errunaldi egin ditzake.

Testua: Ignacio Deán (Gorosti Natur Zientzi Elkarteak) **Argazkia:** Gonzalo Deán

Errespetatu gure bazterretako bide naturalak

Onura ugari ekartzen dizkigu hiritik urrun dauden bide eta bidexka naturalan barna oinez eta bizikletaz ibiltzeak. Gure sasoi fisikoa hobetzen laguntzeaz gainera, lagungarria zaigu estresa murrizteko eta eguneroko bizitzaz ahazteko; gainera, ez dugu kutsadurarik sortzen. Baina, horrelako bideak gozatzearekin batera, argi izan behar dugu ingurumena errespetatu egin behar dugula. Ardura hori dugu. Horrenbestez, ez dugu lurrrera janari hondarririk, bilgarririk eta elikagai ontziririk botako. Ona da aldean poltsa bat eramatea, gure ibilian sortzen ditugun zabor guztiak hartan sartzeko. Izan ere, horrela jokatzuz, ez dugu zikinkeriarik eta kutsadurarik sortuko, eta gainera, ez dugu arriskurik eraginen inguruko animalia eta landareentzat, zaborrak arriskutsuak baitzaizkie. Bestalde, bidean gelditzen bagara, sortzen ditugun zaborrak bildu beharko ditugu. Hain zuzen ere, Berriobetitiko udalerrira zeharkatzen duen Plazaola bide berdearen tarteak (udaberriari inauguratua) hiru atsedenleku gune ditu, mahaiz eta jarlekuz ederki hornituak. Dena den, altzariok erabiltzen baditugu, dena garbi-garbia eta txukuntxukuna utzi beharko dugu, jende guztiak hemengo bazter ederrak goza ditzan. Beraz, zure esku dago ingurumena zaindu eta babestea.



Respetar los caminos naturales que recorren nuestro entorno

Los beneficios de transitar a pie o en bicicleta por caminos y senderos naturales alejados de las ciudades son innumerables. Además de contribuir a mejorar nuestra condición física, nos ayudan a reducir el estrés y a desconectar, y no generan contaminación. Pero disfrutalos conlleva también una responsabilidad, la de ser respetuosos con el medio ambiente. No debemos tirar al suelo restos de comida, envoltorios y envases de alimentos. Es aconsejable llevar una bolsa para depositar todos los desperdicios que generemos durante la ruta. No es solo por no generar suciedad y no contaminar, es también porque la basura supone un peligro para los animales y plantas del entorno.

En el caso de que decidamos hacer un alto en el camino, deberemos recoger los residuos generados. Precisamente, el tramo de la vía verde del Plazaola que discurre por el municipio de Berrioplano y que fue inaugurado esta primavera cuenta con tres áreas de descanso con mesas de picnic y bancos. Si decidimos hacer uso del mobiliario, deberemos dejarlo limpio y en perfectas condiciones para que todas las personas puedan disfrutar de un entorno privilegiado. Conservar y cuidar el medio ambiente está en tus manos.



**KIROLAREN
EGUNA**

.....
**DÍA DEL
DEPORTE**

